


# PUNPALAPLAN

## “Euskal Jolasen Bilduma 3”

**Argitalpen honetan 30 jolas agertzen dira. 30 jolas hauek ezagutzeko hiru bide eskaintzen dituelarik:**

1. **DVDa:** 30 jolasak ulertzeko antzezpenekin
2. **CDa:** 30 jolasen abestiekin
3. **Liburuxka:** Bi atal ditu liburuxkak.
  - a. Gurasoei zuzendutako artikulu bat (*Jolasa, hizkuntza jarreretan eta jokabideetan eragiteko bide eraginkorra*)
  - b. Jolas eta abestien letrak eta hauen inguruko informazioa.





## Sarrera

Haurarentzat jolasa behar naturala da. Jolasaren bidez fantasiak, nahiak eta bizipenak askatzen ditu. Haurra oso txikitatik jolasten da jolasaren fantasiako munduan murgilduz. Jolasaren bidez, haurrak ezagutza eta gaitasun ugari jasotzen ditu oharkabean. Haurrak garapen osasuntsua izan dezan, behar-beharrezkoa du jolastea.

Gurasoek, irakasleek, aisialdiko hezitzaileek... uneak eta guneak eskaini behar dituzte haurren jolasetarako; batzuetan haurrak beraien kabuz lasai jolasteko, bestetan helduekin batera dibertitzeko. Ziztu bizian eta patxadarik gabe bizi garen garai hauetan gero eta zailago zaigu haurrak jolasteko tokia eta denbora aurkitzea eta ahaztu egiten zaizkigu horrek gure haurrengan dituen ondorio txarrak.

Bilduma berri honekin, jolasteko dei berria egin nahi dugu. Horretarako, haur txikientzat 30 jolas proposatzen ditugu. Mota askotako abesti eta jolasak bildu ditugu guraso eta hezitzaileek haurtxoekin abesteko eta haurrak elkarrekin jolasteko: sehaska kantik, esku jolasak, magalean abestekoak, biribilean jolastekoak, besoetan kantatzekoak...

Honako hau, 'Euskal Jolasen Bilduma' izeneko hirugarren alea da eta, aurreko bi aleetan bezala, gure helburu nagusia euskarazko jolasak hedatzea eta gizarteratzea da, hau da, jolasa euskararen normalizaziorako tresna izatea. Horregatik, jolas aukeraketa egiterakoan, batzuetan antzinako abestiak hautatu ditugu eta, besteetan, jolas eta kanta berriak aukeratu edota sortu ditugu.

Hemen duzue, beraz, gure jolasteko deia eta proposamena. Azken finean, jolaserako gauza gutxi behar dugu: denbora, patxada eta ondo pasatzeko gogoia.



## **PRODUKTUAREN AURKEZPENA**

Gipuzkoako Urtxintxa Eskolak modu desberdinetan landu ditu EUSKAL JOLASAK azken hamabi urteetan: gaia ikertu eta landu, jolas desberdinak bildu, informazio guztia antolatu, aisialdiko hezitzaileei, eskoletako irakasleei eta gurasoei formazioa eskaini, herri desberdinetan hurrekin euskal jolasen saioak gauzatu, jolas liburuxkak argitaratu, jostailuak ekoitzi, "Euskal Jolasen Bilduma" CD-ROMak argitaratu,...

Hamar urte hauetan 5000 lagun baino gehiagok jaso dute Euskal Jolasen inguruko formazio moduluak; Ikastaro hauen **emaitzak**, jasoleen esanetan, **ezin hobek** izan dira: transmisio lana ematen ari da, irakasleek badute zer erakutsi eta euskaraz jolasteko aukeraz balia daitezke.

Formazio modulu honek 2001. urtean **pauso berri bat** ematera bultzatu gintuen, euskarazko jolasak argitaratzera alegia. Honela, 2001. urtean "EUSKAL JOLASEN BILDUMA" lehen CD-ROMa argitaratu genuen eta 2002. urtean "EUSKAL JOLASEN BILDUMA 2" bigarren CDROMa argitaratu genuen. Bi produktu hauekin lortu nahi genituen helburuak bete zirela baieztatu dezakegu. Produktuaren kalitatearen aldetik eta hedakuntza mailaren ikuspegitik oso balorazio positiboak egiten ditugu, CDROM bakoitzetik 3000 ale argitaratu ziren eta 2 urtetan agortu zirenez bigarrenez argitaratu behar izan genituen.

Aurrekari hauekin 2008. urtean haur txikienei zuzendutako 30 jolas argitaratzeko erabakia hartu genuen: **Punpalaplan – Euskal Jolasen Bilduma 3**



Produktu berri hau argitaratzeko arrazoi hauek ikusi genituen:

- Jolas gehiago: lehenengo bi CD-ROM-etan, gure jolasen data basetik aukeraketa bat egin behar izan genuen (100 jolas). Interesgarritzat jotzen genituen jolas ugari argitaratu gabe geratu zirelarik. Bestalde, euskararen normalizazio prozesuan -zehazki, hurren aisialdia euskalduntzeko- egokiak diren jolas eta abesti berriak sortu ditugunez azken urteetan, hauek argitaratzeko une egokia izan zitekeela ikusi genuen.
- Haur txikientzat euskaraz jolasteko tresnak: orain arte CDROMetan argitaratu ditugun jolasak ez dira haur txikiek egiteko modukoak. Horregatik, argitalpen berri honekin gabezi horri irtenbidea eman nahi genioke.
- Haur txikiak dituzten gurasoekin eta haur txikien hezitzaileekin egiten ditugun ikastaroetarako materiala: azken hiru urteetan 0-5 urte bitarteko haurrentzat jolas ikastaro ugari ematen ari gara. Urtez urte honelako ikastaroen eskaera asko handitu da eta ikastaro hauetako hartzaileentzat kalitatezko argitalpena eskaintzeko beharra nabaria da.
- Hizkuntza transmisioan eragiteko materiala: jolasekin batera argitalpen berri honetan guraso eta hezitzaileei zuzendutako hizkuntza transmisioaren inguruko mezuak bildu ditugu. Izan ere, gure jolas ikastaroetan soziolinguistikari garrantzia handia ematen diogu eta euskararen normalizazioan jolasek eta kantekek duten garrantzia beti azaltzen dugu.



Beraz, udalerrietan gurasoei zuzendutako sentsibilizazio kanpainetan banatzeko argitalpen interesgarria da. Dagoeneko, hainbat udalek Punpalaplan banatu dute herriko gurasoen artean. **Donostiako Udalak** 2008. urtean bi urteko haurren gurasoen artean 1800 ale banatu zituen eta 2009. urtean **Nafarroako hainbat udalek** 1200 ale inguru banatu dituzte.

Horretarako, Gipuzkoako Urtxintxa Eskolak argitalpena **prezio merkeagoan erosteko aukera eskaintzen die Udalei.**

Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero:

Urtxintxa eskola

[jolasak@urtxintxa.org](mailto:jolasak@urtxintxa.org)

943 27 00 33